

2022-2023ko Zumediaren Eskolaz Kanpoko Ekintzak

Astelehenetik ostegunera 15.40etatik 16.30etara
Ikasturte osorako aurreikusitako prezioa: 85€ jarduera
bakoitzeko, LEGO izan ezik: 224€.

Azaroan ordainketa bakarra egingen da.
Jarduera bakoitzeko 10 izen-emate behar dira.

HAUR HEZKUNTZA: Izan artista, Dantzarekin jolasean,
Kirol anitza eta Jarduera anitza.

LEHEN HEZKUNTZA: Zirkoa, LEGOko tailerra, Kirol anitza,
Xakea eta Zinema-tailerra (hirugarrenetik aurrera).

Izan artista

Haur hezkuntzako haurrekin arte plastikoaren munduan murgilduko gara modu esperimentalean, psikomotrizitate fin, sormena eta irudimena landuz. Honetarako eskulanak, margoketa esperimentalak, akuarelak, abstrakzioak, bolumena eta abar lantzeko ekintzak burutuko ditugu.



Dantzarekin jolasean

Euskal dantzak ikasiko dituzte, haien garapen fasea kontutan hartuta, adin honetan jolasak duen garrantzia ahaztu gabe. Beroketak eta erritmo jolasak egingo dituzte baita euskal dantzak ikasi ere.



Kirol anitza

Jolasen bidez, haurrak hainbat kirol praktikatzen hasiko dira, saskibaloia eta eskubaloia, besteak beste.



Jarduera anitza

Jarduera honetan haurrek antzerkiarekin, eskulanekin, musikarekin, dantzarekin eta ipuinekin esperimentatu ahal izango dute.




Xakea

Xakeaz gozatzea eta zaletzea du helburu nagusia. Taularen geografia hobetzen ikasiko dute, diagonalak eta sektoreak ezagutuko dituzte, baita piezak eta hasierako jokaldi batzuk ere.



LEGOko tailerra

Modu gidatuan eta librean, eraikuntza sortzailea Legoko piezekin. Bertan, gai desberdinak landuz, eraikuntza-teknikak proposatuko dira.



Zirkoa

Ekintza honetan zirkoko hainbat teknika eta disziplinena ikasiko ditugu. Malabareak, akrobaziak, dantzak,... beti ere jolas, sormena eta partehartzearen bidez.



Zinema-tailerra

Zinemako jardueren eta antzerki-jokoen bidez, haurrek beren adierazpen-gaitasunak aztertu ahal izango dituzte, eta zentzumenekin, irudimenarekin eta sormenarekin esperimentatuko dute.

